

ERASMUS+

Amaia Eizagirre eta **Nerea Frias** irakasleak, **Erasmus+** proiektura gonbidatuak izan zirenez, **Txiprera** bidaiatu zuten 1. ebaluazioan. Bidaia luze hau egin ondoren, hainbat gauza **ikasi eta deskubritu** zituzten. Gure interesa piztu zuenez, orain bidaia honi buruz hainbat **galdera egingo dizkiegu**.



Cofinanciado por el programa Erasmus+ de la Unión Europea

1-Zer da Erasmus+?

Ikasle eta irakasleentzako bekak ematen dituzten proiektuak dira. Pauso batzuk jarraitu behar dira eta, azkenik, zure proiektua onartu behar dute.

2-Zer motatako bekak daude? 3-Zenbat proiektu daude?

Mota askotako bekak daude, baina gurea *Educación escolar* da, ikasle eta irakasleengan oinarrituta dagoena. Hau bi zatitan banatuta dago: KA1 eta KA2.



KA1: Irakasleengan oinarritzen da, eta beste ikasleekin irakasteko edo nola ikasten duten behatzeko aukera ematen du; gainera, beste kulturen ikas modua eta komunikazio modua nolakoa den ikasteko erabil dezakezu. Horrez gain, kulturari buruz eta beste gauzei buruz asko ikas dezakete.

KA2: Ikasleekin proiektuak egiteko balio du. Proiektu hauek jolas, kanta, irteeraren... bidez egiten dira eta bertan ez da gramatika lantzen, komunikazioa baizik.

Proiektu hauek, gutxienez hiru herrialde artean egin behar dira. I haz, Turkia eta Letoniako bi ikastetxeekin elkarlanean aritzeko eskatu genuen beka bat baina ez ziguten eman.

4-Zergatik joan zineten Txiprera? 5-Nork proposatu zizuen proiektuan parte hartzea?

Interneten kuskuseatu ondoren, beste irakasleak animatu eta oso interesgarria zela ikusita, parte hartu genuen. Zorte handiarekin gure proiektua onartu eta Txiprera joateko maletak egin genituen.

6-Zer egin zenuten Txipren?

Lehenik ikastaro bat egin genuen, astebete iraun zuena. Bertan gauza asko ikasi eta irakatsi genituen. Hortaz aparte, Txipre ezagutzeko pare bat txango egin genituen.

7-Zenbat denborako proiektua izan da?

Urtebeteko proiektu bat da. Han ikasitakoa hemen praktikan jarri behar dugu eta gero balorazioa egin. Irailean diru kopuruaren %80a eman ziguten eta ekainean egindako balorazioarekin informea egin behar dugu; hala, horrekin faltan den %20a emango digute.



8-Beste gauza bat espero zenuten?

Ikastaroa, espero genuena baino interesgarriagoa izan zen. Oso talde txikia zenez, beste irakasleengandik gauza berriak ikasi genituen; adibidez, beraiek nola ematen dituzten klaseak.

9-Nola lagundu zaitu pertsonalki proiektuak? Eta profesionalki?

Indar berriekin bueltatu ginen. Irakasle guztiok oso motibatuta geunden eta proiektuak egiteko ideia berriak eman zizkiguten.

10-Zer proiektu egingo dituzue edo egin dituzue ikasleekin?

Speed dating izeneko jolas batzuk abestiekin egin ditugu, batez ere ahozkoasuna modu praktikoagoan lantzeko. Laugarren mailan egin ditugu proiektu gehienak, baita hirugarren mailako frantseseko ikasgaiaren ere.

11-Etorkizunean beste proiektu gehiago egingo dituzue?

Berriak eskatu ditugu. Bi urtetarako KA1. Lehenengo urtean ikastaro bat Finlandian, Europako hezkuntza sistema desberdin batzuk konparatzeko eta hurrengoan han klaseak nola ematen diren ikusteko.

Gainera, gizarteko eta gaztelaniako bi irakasle Frantziara bidali nahi ditugu klaseak ematera.

Honetaz gain KA2 bat ere eskatu dugu. Hau Italia, Turkia eta Alemaniako beste ikastetxeko irakasleekin ingelesa libururik gabe emateko aukera izango dugu, “antzerki moduan”. Hau 2 urtetarako izango da. Orain emaitzak jasotzeko zain gaude.



Dani Lertxundi eta Aitor Elias